

Kapitalismo berdearen nora eza

par Amerikako kritiko marxista Frederic Jamesoni leporatzen diote esaldi esanguratsu hau: "Errazagoa dugu munduaren bukaera irudikatzea, kapitalismoarena baino". Ez zaio arrazoirik falta. Non dago koska? Kronologian edota iraunkortasunean ez behintzat. Kapitalismoa eredu ekonomiko berria duela 300 urte inguru abiatu zen. Denbora urria, gure jendarteen historian.

Etsai indartsuen falta ere, ez du izan. Teoriko eta iraultzaile antikapitalista ugari ezagutu ditugu. Hastapenetan *ludditak*, makinismoaren aurka altxatzen ziren artisauek, baina gero mundu osoan ezagutu ditugun langile sindikalistek, emakumeak ahaztu gabe, mugimendu indigenak eta nazionalak, planeta osoan kapitalismoaren amaiera bilatu dute.

XX. mendeko iraultza sozialistak, batez ere duela mende bat boltxebikeek gauzatu zutena, ez dira gauza izan kapitalismoa gaintzeko eta egun bizpahiru herrialde kenduta kapitalismoak beste guztietan dirau bere krisiekin. Nago, kapitalismoaren "erresilientzia" k muga ekosistemikoetan topatu duela bere akabera.

Yayo Herrero lagun ekofeministak dioenez, pairatzen ari garen krisia ez da ekonomikoa edo ekologikoa bakarrik,



Iñaki Barcena

EKOLOGISTAK MARTXAN TALDEKO KIDEA

Natura eta bere zikloak kapital berri bihurtuz, naturaren prozesu ekosistemikoak ere finantziazioan eta merkataritza dinamiketan sartuz, krisi ekologikoaren soluzioa iragarri dute

zibilizazio krisi bati aurre egiten ari gatzazkio (ikus *La gran encrucijada*). Ikuspuntu ekologiko batetik, XXI. mendean sarturik, dinamika edo krisiaren kausa nagusi bi sumatzen ditugu: bata aldaketa klimatikoa (beroketa globala, ozeanoen azidifikazioa, ekosistemen

eta gizarte hondamendiak) eta bestea petrolioren gailurra (lurrean zegoen petroliaren erdia erreta, energia merkearen garaiak amaitu dira).

Garapen sostengarriaren leloa agorturik, ekokapitalismoa edo ekonomia berdea asmatu berri dute irtenbidetzat. Natura eta bere zikloak kapital berri bihurtuz, naturaren prozesu ekosistemikoak ere finantziazioan eta merkataritza dinamiketan sartuz, krisi ekologikoaren soluzioa iragarri dute. Ez, orain arte bezala, energia eta materialen merkataritza librea medio, CO2ren isurketak eta aldaketa klimatikoaren arriskuak hartuz baizik, baso eta oihaen zerbitzuak eta bestelako naturaren "zerbitzuak" ikusezinezko eskuetan jarritz, krisi ekologiko/ekonomikoa gaintuko da, kapitalista berdeen ustez.

Aldiz, Daniel Tanuro (*El imposible capitalismo verde*) sindikalista belgikarrak ekokapitalismoaren kontraesanak azalarazi ditu. Etekinen pilaketa eta produkzioaren hazkundera baldin bada helburu nagusia, krisi klimatikoa bizkortuko da. Beroketa globala jaisteko, produkzio gutxiago eta lokala behar dugula dio. Eta burura etortzen zaizkit Petronor, erraustegiak eta AHTren proiektuak. Katu kapitalista, erbi ekologizatatzat saldu ez, mesedez! ■

blogetan!
BLOG IZARREN BILA

EUSKAL BLOGARIEN II. TOPAKETA

Antolatzailea: **AZKUE**
Fundazioa

Laguntzailea: **ARGIA**

MARTXOAK 30, OSTEGUNA
Bilboko Euskararen Etxean (15:30-20:00)

Hitzaldiak

Blogintza inkestaz (Azkue Fundazioa)

Mahai-inguruak

Garapena, posizionamendua eta baliabideak

Sustapena, publizitatea eta monetizazioa

Sari-banaketa ekitaldia

SARRERA DOAKOA

Eman izena! www.blogetan.eus/jardunaldia